

# ZAR

**BIZKAITARRAI-BIZKAIERAZ\***

121n. Zenbakia

Garagarrilla  
Uztaila  
1988



## LOIOLA:

- Euskalerriarren biotzean
- Kristau-Fedearen ezaugarri
- Mundu zabalera begira
- Or jaio zan gure zaindaria



## IRU ERREGEN MAIA

### ZERTZELADAK

"Euzkadi'ko Mendiak" idazpuru onegaz idazten doguz, illero, gure ZER onetan, gure lurralde maitegarri onetako mendirik ezaugarrienen zertzeladak, aldizkari onen irakurleen ezaugarritzat. Eta orretara izanik, zelan ez aitatu lurralde onetako mendirik goitiena?

"Mesa de los tres Reyes", gaztelera izen orregaz ezagutzen dan aitz-mendia, naita ziur beren jatorrizko izena euzkerazkoa izango dan, gaur-egun Iru Erregen Maia euzkel izenez be ezagutzen dana (guk Iru Bakaldunen Maia esango dogu), 2.438 neurkin goitik dituala, Naparroa'n Sorkaldera, Auñamendiko mendi-lerroan aurkitzen da, bere antzerako goi-mendi edo aitz zorrotzez ingurututa.

\* \* \*

### MENDI-GAIÑEAN

Iru Bakaldunen Maia onek Ipar-aldera Añalarra 2.358 neurkiñeko mendia dau, pizkat Sorkalderago Anie-mendi, inguruko goitiena 2.507 neurkin. Sorkal Pene Blanc (Bearne lurraldekoa) 2.390 neurkin eta, Egoaldera Petretxena 2.377 neurkin. Sarkaldera barriz, oso urbil Budogia 2.305 neurkiñegaz.

Gallur onetan, Iru Bakaldunen Maia onetan ez dago ez mairik ez, bakaldunak bilduteko leku egokirik eta, beraz, ziurki ez zan iñoz berton orretaiko gizon aundikirrik aurkituko, baiña, gaillur onetan mugatutzen dira Naparra, Aragoi eta Bearne bakalderriak eta, ortik dator bear ba'da mendi onen izena.

Orixe bai, aitz-mendi orretan zerbait egin nai eben mendi-zaleak eta, 1952.an mendi orren gaillurrean eta eskerrak napartak mendigoizaleai, Xabier'ko Pantziska deunaren irudia jarri zan, baiña, aundiegia goialde artarako, gure argazkian ikusi leikenez eta, urrengo aixe-bolada baten aitzbera eratsi eban guztia trizkatuaz.

Irudi orren ipintekera dalata, Euzkadi guztiko mendigoizaleak bildu gintzazan bertan, eundaka, eta bertan izan gintzazan gure erriko taldetxu bat, argazki orretan ikusten dan lez.

\* \* \*

### IGOERAK

Benetan menditarte zoragarriak dira inguru orreik. Bertatik diran ikuskizunak ez dabe azkenik.

Igokera bi dira guk ezagutzen doguzanak; Bat, Isaba'tik urten Belagua'ko bitxaletik eta laster jarrai eskomara Zuriza (Zuritzza)'rako bitxaletik eta Zuritzza'n artu ezkerretera eta jarraitu berebil-bidea amaitu arte, "Plano de la Casa", izenez ezagutzen dan lekurarte, 1.500 neurkiñean. Bertatik 3,30, oiñez jakiña! gora arte.

Beste "bidea" Belagua gaiñean napartar mendi-zaleak daben aterpe zabaletik urtenda, beti Sorkalde-Egora, pizkat jatsi eta urren Lapazarra 1.787 nkin ondotik igaro ta Larrerria'ko larreetatik gora "Hoya La Solana" zeleikadara eta bertatik gora goiko gallurrera eldu arte. Iru ordu edo zerbait geiago. Jakiña! ibiltalde orreik egiteko pizkat trebetuta aurkitu bear da, baiña, pozgarria da inguru orreik ezagutzea.

Basa-jaun

ALTUNA'TAR JOSU

# IL ALA BIZI

Gaurko gure gizarte onetan jokera bi oneik agiri dira non-nai: Biziaren aldeko jokerea ta lana eta iltearen aldeko ekiñaldiak.

Errez ikusten dogu jokera bi oneik alkarren aurka doazela eta bata ipinten dauana besteak kendu egiten dauala, baiña or daukaguz biak egunero gure begi arri-tuen aurrean.

\* \* \*

## BIZIAREN AURKA

Biziaren aurkako jokoa. Batzutan izukeria dala, beste batzutan zapalkeria dala, zuzen-zuzenean iltea bera billatzen ez ba'da be, orrantza doaz.

Or daukaguz indartsu, geroago ta indartsuago, biziaren aurka datozen edo geuk gizonok ekarten doguzan drogea, alkoola, tabakoa eta abar... Ba-dakigu biziaren edo osasunaren aurkakoak dirana, baiña artu egiten doguz.

Eta arlo onetan ezin itzi aitatu barik mundu zaballean ainbeste milloi bizi kentzen dauzan eta geroago ta zabalago dagoan jaio-bako umeak iltea. Jokabide benetan okerra ta basatia au, kasu batzutan urtenbide egokia billatzea gauza gaitxa izan arren, esaterako amaren osasunaren arriskua edo jaiotekoa bear dan lez osotu barik datorrenean eta amaren gogoz-aurka sortua danean. Baiña emen be bizia aurrera atera bear litzake, gero beste arazoak.

Tamalgarria baita aspaldi... ugari entzuten dan eutanasiaren arazoa. Onetan be geroago ta zabalkunde aundiagoa egiten da, aurreko ZER'en Anes'ek idazten eban lez, gaisoai gaiso-etxeetara joateko bildurra sartzera eldu arte.

## BIZIAREN ALDE

Baiña ba-da gizartean biziaren aldekoa dan beste jokabide bizi bat be: Zelako alegiñak egiten diran sarritan ilteko dagozan gaisoen bizia luzatzen! Edo zentzun barik dagozan umeen biziak aurrera ateraten! Edo gurasoak seme-alabarik sortu ezin dabenean, era barri batzuk artu eta ori lortzen!

Eta pozez ikusten dogu, baita, ilteren bat izaten danean aspaldion egiten diran aurkako kale-agertzeak!

Osagilleen artean eta erri-gizonen artean alegin aundia egiten da biziaren alde eta bizitzako urteak asko luzatzea be lortu da, eta lenago berez ainbeste ume ilten ziran baiña olakoak bizirik ateratzea be etorri jaku, osasuna ohea izan daiten lan aundia egiten da eta gorputzeko miñak arintzen be bai. Jokabide oneik biziaren aldekoak dira, pozzarriak.

\* \*

## BARATZA TA SUGEA

Beste arlo askotan agertzen dan burrukea da ba emen ikusten doguna: Mundua atsegin-baratzaren antzekoa da baiña or dago beti onaren eta txarraren ezaugarri dan zugatzaren inguruan, jokabide biurriak gogortzen dauskuzan zugea.

Ementxe, olakoxe mundu onetan bizi gara eta jokatut bear dogu, beti biziaren alde, beti bizitza egokiago baten alde.

Gizarte ta errigintzako ekintza bete bear dogu, baiña danaren gaiñetik bizia aurrera ateraten dogula.

Gorpuen gaiñean eregiten dan aberri-bizitza, oiñarri eraginkorrean dago, ez dira gorpuak aberria sendotzeko bidea, naizta zapaltzailleen ekintzen-ondorenak izaten diranean, aberri-miña sortzeko bide izan.



# ANTXINAKO EUSKALERRIA

## GALTXA-GORRIREN ESKUTIK

### AKELARREAK (II)

#### UGARI

Orduan gogoratu jatan nire Lekeitio'ko amamak esaten eustana: sorgiñak mozorroz jazten zirala akelarrea joateko, ta gure auzoko Benita, atso zaarra be, sorgiña zala...

—Galtxa-gorri, sorgiñik ba al zan koba onetan...?

—Inguru guztian zegoan emen sorgiña ugari baiña, Kristaubidea sortu zanean, galdu ziran sorgiñik geienak... Banaka batzuek gelditzen gara oraindik...

—Zu be, sorgiña zara...?

—Nik, neuk emoten dautset azti ta sorgiñai, eurak bear dabezan aal ta indarrak. Jostorratz-ontzi baten eroaten nabe eurakaz.

—Ta, "akelarreak" egiten zenduezan?

—Orduko "akelarre" areik galdu ziran...

—Non izaten ziran "akelarreak" ...?

—Zugarramurdiko koban egiten ziran oso akelarre ospetsuak; baiña andik aparte be, izaten ziran...

—Non...?

—Larrun mendin, Ataun'go Mandobita'ko zubi azpian, Orozko'ko Garaigorta'ko aitzean, Dima'ko Petralanda zelaian... ta bide-kurutze guztietan.

#### EGINKIZUNAK

—Ta, zertzuk egiten dira akelarre baten...?

—Ara, kontatuko dautzut Bidarte'ko mutillari zer gertatu jakon bein:

Ostiral arratsalde baten, Txomin Bidarte andregai ikustera joan zanean, oiñetako pare polita eroan eutsen Kataliñ'eri. Kataliñ sorgiña ete zan susmoa jaio zan errian; baiña, Txomiñ'i susmo orregaitik ardura ez. Ziranak zirala, bera Kataliñ'ekin ezkonduko zan... Bai, orixe...!

Oiñetakoak oraindik amaitzeko eukazan, ta ekin eutzon lanari. Bitartean gaua eldu da, etxera biurtzeko ordua be, bai... Baiña, bertan lo gelditu zedin, eskatu eutsien Kataliñ'en gurasoak: kutxa batean egingo ebal lo...

Gelditu zan.

#### SASI-GAIÑETIK

Gau erdian zer edo zerk itxartu eban... Kataliñ zeterren anka-puntetan... Gerturatu zan sut-ondora, labatzapetik arri bat jaso, bertatik kutxatilla atera ta bertako olioarekin bere gorputza igurtzi ta onelan esan bitartean: "Sasi-gañetik eta odei azpitik".

Ori esanakin batera, tximiñitik gora, egaz, abiatu zan.

—Oraintxen dakit Kataliñ'en barri, esan eban Bidarte'k. Ta, Kataliñ'eri egiten ikusitako guztiak egiñ eban berak be. Bere burua ikusi eban airean, mendien gañetik, zelai zabal bateraño... An ikusi ebazan ikuste-koak...! Jende apain askoren artean, an egozan bere lagunak be, Kataliñ'ekin batera. Soñeko gorriakin zebillen Kataliñ.

Izkututik (ez eukan ausardirik bistara agertzeko) gauza asko ikusi ta ikasi ebazan.

#### AKER BALTZA

Aker-beltza erdi-erdian egoan.

Ta etorri zan akerrari agur egiteko ordua. Banan-banan, bata bestearen ondoren, akerrari atzekoaldean mun emotera, eldu ziran.

Ez eutsola berak munik emango, esan eban Bidarte'k bere artean.

Txanda etorri jakanean, zorroan zekarren labaña atera ta sartu eutsen akerrari atzekoaldetik...

Akerraren orruak...! Bat-batean, argia amatau ta sorgiñak izkutatu ziran.

Bidarte'k bere onera zanean, larrartean etzanda ikusi eban bere burua... Ez jako oraindik sustoa pasa...

#### ZELAN GALDU ZIRAN

Sorgiñak ez zirala nengoan pentsatzen... Zer esango ete eustan Galtxa-gorri'k arazo orri buruz...?

—Nere aitak esaten eban Eibar'ek galdu zitula sorgiñak... Egia al da?

—Eibar'en egiten dabezana arma motzak eta pistolak, gezurrez sorgin-lapurak galdu ebazan... Besteak, ordea, ermitak eta elizak galdu dabez...

—Ara or been, beste ermita bat, Galtxa-gorri...

—Ori, San Mames'en ermita da. Ortik datorkio "Santi-Mamiñe"ri bere oraingo izena, ta koba-zulotik ur jaso eben.

—Ta, an goiko tontorrean dagoana...?

—San Migel'en ermita da... Ermita bi mendi bakar batean, aztikeri ta sorginkerien aurka... Kontuak atera, zenbat sorgin bizi zan inguru oneitan.

—Añ gaiztoak ziñeen...?

—Ez giñan oso onak izango... Baiña, gure arrastorik ez da oraindik Euskaldunen artean galdu...

—Ezet...? Zelan, baiña, ainbeste urte igaro ba' dira arrezkero...?

—Zuenai eusteko. Zuek lako erririk ez dira bi jaio munduan, eta...

—Ez dautzut, ba, ori sinisten: gure artean sorgin-eriak dagozela.

—Ez daustazula sinisten...? San Mames ermita ikusten dozu or aurreko muino orretan... Santimamiñe'ko koban egiten ziranak (edo arein antzekoak) San Mames'en ermitan egin oi dira: erromeriak, errogatibak, konju-koak... leizeko indarrak ermitara igaro ziran... Ames txarren kontrako indarra da bat... Begira, zer esaten daben baserritarak:

"San Ames,  
bart ein dot  
ames.  
Ona ba'da  
bion partez  
txarra ba da  
beyu artez..."

# BALENTIN BERRIO-OTXOA (VI)

MIXIOLARI TA GOTZAIN

GOIRIA

## GURASOAI IDAZKIAK

Okañan iru urte egin ostean Manilako misiñoerako aukeratu eben Nagusiak.

Bere gogoa? Bere guraria? Tonkingo mixiñoan egin lan eta odola emon Kristogaitik. Idazki maitekor-samur bat egin eutsen bere gurasoai Nagusiak mixiñoetara joan bear ebala esan eutsonean.

"Agur ba, agur nere guraso maitiak: Gurasorik asko arrotuta bizi dira munduko konde edo markesen batek bere pajetzat eskojitu dabelako bere semen bat eta pozez txoratuta egon oi dira katanarrua sendotzeko esperantza bategaz.

"Ze arrotasun santua bada euki bear eztabar berok konde edo markes guztiyen Jaubiak bere etxeko mayordomutzat zeruko atien itxi-eregintzalletzat eskojitu dabelako beron seme bakarra?"

Agur bada neure guraso maitiak: askok bialtzen dabez bere semiak Indiyetara lur piska baten atzian; beron semia bere Indiyetara doia ez urriaren eta zidarrraren billa, ezpada zeruaren billa beretzat eta beste batzuentzat."

## BESTE IDAZKI BAT

Beste idazki bat egin eutsan Aita Juan Arizti Karmeldar Pralleari Elorriora. Osaba eban au amaren aldeetik eta sarri idazten eutsan maite-maite eban-da. Idazki onetan be bere poza agertzen dau mixiñoetara doalako. 1856'gko. abenduaren 28'n urten zan Balentin Okañatik; urtarrillaren 1'n eldu zan Sevillara. Illaren 3'n itxasoraturik itxasontzi txiki baten eldu zan Kadizera.

1857'gko. urtarrillaren 29'n urten zan Kadiztik Malinarantz "Hispano-Filipinas" eritxon itxasontzian. Bost illebetz egin ebazan itxasoan eta bagillaren 27'n eldu Malinara. Beste iru euzkeldun ioiazan beregaz —diño Sabino Arana-Goirik— Berrio Otxoari buruz egindako idazlan baten. Kapitana, bermeotarra; Otxandioko prantziskotar pralle bat eta Irungo emakume bat. Euzkera utsean mintzatzen ziran laurak. Balentin berak be ba-diño au bere idazki batzuetan.

## MANILAKO LEKAIDE-ETXERA

Domekatarren konbentura joan ziran Balentin eta beste zazpi domekatar pralle. Zer egian Manilako konbentuan? Tonkingo mixiñoerako gertu, batez be izkuntzak ikasi.

Gaztea zan Balentin. 29 urte besterik ez ebazan. Tonkingo mixiñoa joan bear zala esan eutsoen Nagusiak. Pozarren artu eban albistea.

Idazki bat egin eutsan bere aitari azillaren 30'n. Aita maitea-diñotso —lur barri ontan zelako osasuna daukidan yakin gura izango dozueta-ta nago. Orain arte Jaungoikoari eskerrak Okañako Kolejoan lez sendo yarraitzen dot."

Eta bere amari egun berean egindakoan. "Amatxo maitia: zenbat gau galdu ditu Kadiztik urten gindun ezkerro? Eta nik sosigu andiyan pasatu ditut lo itxasua-ren erdiyan egiñik. Eguna kontatzen egongo zan sus- toz beterik karta au artu artian eta osasun bakiagaz egon da gure artian Jaungoikoari milla esker, faltatu etxaku ezer."

Beti euki dogu mai ona eta egunian-egunian ogi biguna. Lau euzkeldun bere etorri gera, noizian bein itz egin dogu euskeraz."

Beste idazki-karta bat be egin eutsan Manilatik bere amari bertsoan, baiña ez dogu jarriko emen asko luzatuko egingo leuke-ta idazlana.

## TOKIN'era

1858'gko. martiaren 30'n eldu zan Balentin Tonkin- lurraldera. Estu ta larri ibilli zan aurretik erabilliak ba-ziran kristauak lurralde aretan. Mixiolariak eurek be ostonduta egozan. Apirillaren 15'n eldu zan goizalderuntz basoak, ibaiak eta bereziak igarota. Egurzeko etxetxu bat izango zan bere bizi-lekua.

Antxe lurralde aretan basarkatu ebazan ostonduta egozan Melchor Garcia Sampedro Tonkingo Gotzain Jauna, Aita Estebez eta beste pralle ta abade batzuk.

Ez ziran ondo ikusiak atzerritarrak, Balentin izena barik Duk-Thay-Vinhi izena artu eban. Laster asi zan uri ta erri ta baserrietatik zear ebanjelioa zabaltzen. Lan andirik ezin egin arerioak gogor ekien-da.

## GOTZAIN

Garcia Sanpedro Gotzain jauna eskuratu ta arrapatu egiela agindu eban Tu-Duk erregeak. Bere bizitza arris- kuan egoala-ta ordezeko bat jartzea erabagi eban. Aita Santuaren baimena eukan orretarako. Jainkoari otoitz egin ondoren Balentin Berrio-Otxoa aukeratu eban.

Ille bi bakarrik daroaz Balentinek mixiñoan. Arritu- ta geratu zan Gotzain Jaunaren idazkia artzean. Ainbat atxaki ipiñi eutsazan Goitzain jaunari; negar be egin eban, baiña Garcia jaunak artzera beartu eban Jaungoi- koaren guraria zala-ta.

Gogo-jardunak egin ebazan Gotzaintza artu aurre- tik. Bagillaren 29 eguna aukeratu eben gotzaintza artze- ko, baiña gauzak egunero txarragosa joten ebela-ta aurre- ratu egin eben il beraren 13'ra.

Garcia Sanpedro Gotzain jauna, Riaño Ordenako Nagusia, Aita Karrera ta Hanh kistar-ikasbide-irakaslea egozan beragaz. Ona zelan: baserri baten eta goizeko ordu bietan atek eta leioak itxita. Or daukagu ba gure Balentin Gotzain eginda.

Oraintxe asiko dira beretzat egunik gogorrenak, estual- dirik andienak. Bere sinismena, kemena ta jaungoiko- zaletasuna agertuko dauz jazarpenen artean.

# LA VIGERIE

**BAIONA'N JAIOA, FRANTZIAN GOTZAI, AFRIKAN GONGOTZAI ETA ELIZAN KARDENAL. XIX MENDEAN ESKLABOTASUNAREN AURKAKO BORROKATZAILLE PURRUKATUA, AFRIKAN BATEZ ERE. "ANAI ZURIAK" DERITZAN ELKARTE MISIOLARIAREN ERATZAILLE...**

## EUSKALDUNA

"Euskalduna naiz-iñoan berak-eta orrexegaitik, buru-gogorra; tontorrera eta gaillurrera zuzenean ezin ba'dut, zearka ekingo diot; baiña, gora eldu gabe ez dut etsiko..."

Ala gertatu zan bere bizi osoan; eskuartean artutako lanak goraiño jaso zitun. Baiona n jaioa zan urriaren 31'an, urtea 1825. Irurogeita amabi urte beteta il zan 1897'ko abenduan.

Gizon indartsua espiritut eta gorputzez, beti lanean irrikatzen, lagun urkoaren alde beti maitasunez eta maitasun orrek Kristorengan zuan bere sustraia eta oiñarria.

Aita Santu Leon XIII'garrenak zionez, Zibilizazio eta Kristautasunaren aldeko jokabideetan, Lavigerie zan aurrenetako bat munduan eta historian. Eta orrenbeste zion gerorago Pio XI'garrenak ere.

## ARDURAK

Zer izan zan?

Ona zertxo batzuek: Paris'eko Sorbona Ikastola Nagusiko irakasle, Oriente'ko Eskolaren zuzendaria, Rota Romana deritzan Epaimaiako bat, Nancy'ko Gotzai, Argel'eko Gongotzai, Mixiolari Zuriaren eratzaille, esklabuen askatzaille, Elizaren Kardenal eta Afrika'ko Apostolu nagusia...

## EKLABOTASUNA ISTORIAN ZEAR

Esklabotasuna Afrikan beltzen kaltean egiten zan antxiña-antxiñatik. Baiña, sistema bezala XV'garren eunikian eratzen da. Antonio González, portugesa, itsasgizona zan eta, mende-erdi bat Ameriketarako arkitu baiño lenago, asi zan Afrika egoaldera joaten, Bojador deritzan lur-muturretik beera. Legorreak sartu eta bidaldien ondoren gizaseme beltzak ekartzen zituzten arrapatuta, esklabu bezala saltzeko.

Arrek eman zion negozio negargarri oneri asiera eta bere antzera ekin zioten beste batzuek ere negarra Afrikan zabalduz.

Baiña, arazo au benetan bildurgarri biurtu zan Amerikarako arkitu ondoren. Asieran kolonizatzaileek indioez baliatzen ziran, auek ez bait zuten animarik animalienak ezik. Anai Bartolomé de las Casas eta Renteria euskaldunak, ordea, indioen eskubideak defenditu zituzten Errege Katolikoaren aurrean eta eurentzako eskubide guztiak eta askatasuna lortu zuten.

Andik aurrera, indoen, ordez, Afrikako beltzak esklabu.

Konpañi aundiak eratu ziran negozio au aurrera eramateko Afrika barrualdeko probintzietan. Kosta-aldean gazteluak eta txabola aundiak eraiki zituzten barkuak zetozten bitarteetan, Ameriketarako beltzak gordetzeko.

Esklabotasunaren aurkako Frossard jaunak zionez, Ginea'tik 1788'arte, amar milloi beltz atera zituzten.

Eta Afrika osoan, 45 milloi 1.511'tik 1.789'ko bitarte guztian.

## MORROIEN ALDE

Lavigerie'k bere mixiolariak bialduta zeuzkan Afrika erdira eta aiengandik jasotako berriekin sutu zan zearo bere biotza eta esklabuen alde lan egiteko gogoia.

"San Ziprianok, neure aurreko gotzaiak, elizako kalizak saldu zitun bezala Afrika'ko orduko esklabuak askatzeko, neuk ere alegiñak egingo dituk gizarajo oien alde, mundu guztiko katolikuen biotzak ikutu arte."

Une artan Brasil'eko enperadorea eta Leon XII'garrena alkarrekin artu-emaneta jarrita zeuden Brasil'eko bi milloi esklabueri askatasuna emateko; orduan gure euskaldunak eskutitz bat bialdu zion Aita Santuari Afrika'ko beltzen alde jokatzeko.

Idatzi au begien aurrean izan zuan Leon XIII'garrenak bere "In plurimis" enziklika Brasil'go gotzaiantzat idatzi zuanean, eta bertan mundu zabaleko kristauei eskatzen zien alegiñak egin zezatela lur-gaiñetik esklabutasuna errotik ateratzeko.

## AITA SANTUAGAZ

Askatutako esklabu arabe eta beltzak arturik berarekin, Aita Santuarengana jo zuan 1888'ren Pentekosten egunean, Vatikanoko Sala Ducal deritzan gelara. An agertu zuan Afrika'ko esklabuen egoitza negargarria.

"Egoera iguingarri au lurren gaiñetik zearo kentzeko indarrak duten guztiei erregutu diet-zion Leon XIII'garrenak— alegindu ditezela ori lortzeko; baiñan eginkizun au aurrera eramateko, zuan espero dut, batez ere, Kardenal jauna, ezagutzen bait dut zure kementasuna eta ziur nago Kruzada berri au aurrera eramango dezula berre azken elbururarte."

## EKLABUEN ALDEKO EKIÑALDIA ERATZEN

Aita Santuaren agindua artu ondoren asi zan ekin-tza ori eratzen. Lenengo Paris'tik ekin zion lanean, San Sulpizio elizaren pulpitotik, gotzai jantziekin: bere mintzo gartsuak suspertu zitun entzule guztiak: "odolak eta sufrimentuak eten; lotsagarri da gure gizaki-alkartearentzat esklabotasunaren irauntzea; beraren aurka lan egitea, justizi-zuentasunaren eta askatasunaren alde lan egitea da..."

Egunkari danak onartu zuten bere lana.

Paris'tik Londres'era. Mitin batean parte artzen du, esklabutasunaren aurka; lord Granville jauna zan mitiña eratu zuena eta Ingalaterrako Kardenal Nagusia, Manning Jaun agurgarria, mai-buruko.

Billera onen erabakiek beartu zituen Europako agintariak esklabotasunaren kontrako neurri sendoak artzera.

Londres'etik Bruselas'era.

Emen 25.000 franko-urre bildu zitun esklabuak erosteko eta 500 gaztek eskeiñi zizkioten beuren buruak, Desertuko Anai Zurien arterako. Berak eratu zuan Anai-di au Afrikao Misioen onerako.

### ERREGEAREN ITXAS-ONTZIA

Gaiñera, gerrako barku bat eskeiñi zion Erregeak, berberak, Zingira Aundien (Los Grandes Lagos) inguruetan esklabutasunaren aurkako ekintzari laguntzeko. Friburg'en (Alemanian) esklabotasunaren aurkako Kongresuan parte artzerik ez zuan izan, gaixotasunak galezarazita; baiña, txoztena bialdu zuan ondo argia.

Espainia'ren laguntza ere eskatu zuan.

Italia'ra urbildu zan, lenen Milan'era eta ondoren Napoles'era. Bere deiari emandako erantzuna zoragarria izan zan: beste iñon baiño ohea.

Luzerna'ko billera egitekoa zan; baiña, Lavegerie gaixo eta aren ordezkari bat egin zan Paris'en gure kardenala buru zala. Billera onetara nazio geienak bialdu zuten beuroen ordezkariak. Erabaki bat auxe artu zuten: Aita Santuari zera eskatzea, parroketan eskabide bat ekintza onen alde egitea urteero. Lavigerie berak eraman zion eskabide au Leon XIII'garrenari. Andik sortu zan Epifani egunean parroketan egiten zan esklabuen aldeko eskea.

### AFRIKA'KO MIXIOLARIA

Apaiz berri zala, liburutegi bateko idazkari, Mixiota-ko gaiak erabilli zitun liburu zerrenda bat idazteko. Orrekin bakarrik ez zan, ordea, konforme eta 1872'an Afrika'ko Kabila artean ibilli zan mendi-malkarretan zear mixiolari. Pio IX'garrenak bere ondoan nai zuan apaiz ura; baiña, Lavigeriek eskatu zion arren eta arren utzi zezaiola bere barruko mixiolari-garrari jarraitzen...

\* \* \*

Nancy deritzan elizbarrutiko gotzai izendatu zuten; bere gogo, ordea, ez zan esi estu aretan baretzen eta Argel'erako izendatu zutenean, orduantxe bere onera etorri; Argelia ikusten bait zuan Afrika'rako ate zabal baten antzera. Afrika zuan Lavigeriek bere biotzaren kezka guztien erdian.

Arabeak zitun ifar aldean eta beltzak egoan; auekin lana zuzenean egin bear zan Kristo eta bere Eliza agertuz; aiekin, berriz, zearka maitasunezko ekintzen bitartez.

Pio IX'garrenak Sahara eta Senegal'eko Delegado Apostoliku izendat zuan.

### ARGEL'era

Gotzai gazte arek bere burua Afrika'ko Apostoluzarako aukeratua ikusten zuan eta Argel'era eldu zanean onela zion:

"Zorioneko Eliza afrikarra, zure naigabeak gozatze-  
ra natorkizu eta zure garai bateko ospea berritza.

Martirien odol artean sortu eta azia zera eta, zure seme batek zionez, martiri-odola kristau berrien azi emankorra da. Ala gertatu dedin nerre malkoak zureekin naastuko ditut eta bear ba'litz nere bizia ere emango nuke zure alde, zu aundi eta ospetsu ikuste arren."

Eta aurrerago:

"Afrikar lur au nazio kristau eta biotz aundikoa egin nai dut, zuen bitartez, eremuan zear, Afrika erdira eldu aal izateko, bertan dauden erri negargarri aiek lurretik jaso eta Kristautasunera erakartzeko..."

Ifar-Afrika eta Afrika Erdikoa, guztiak nai zitun Kristorentzat.

### ARGEL'en

Bera eldu zanean, izurri edo peste ikaragarri bat agertu zan Argelia'n, ondorengo gosete eta mixeriarekin. Umezurtzentzako etxeak eta gaixoentzako ospitalak eraiki zitun eta neurrigabeko ondasunak zabaldu.

49 eliza berri eraiki zitun eta 313 parroki eta kapilla berritu. Bi seminario apaizgaintzako, gazteez beterik, jaso eta ondoren 900 erlijioso, andre eta gizon, ekarri zitun gaxoeitegi eta eskoletarako...

Argelian kristautasuna errotuta, bere semeak bialduko ditu Sahara, Sudan eta Afrikaren ardatzean dauden errietara. Auen artean, Uganda'ra, bere semeen odolez ongarritutako errira.

### EGOKITASUNA

Afrika'ko Ifarraldea arabea da eta auekin zearka ibilli bear kristau batek eurak bereganatzeko. Ori ondo-txo zekian Lavigerie mixiolariak. Otoitza eta karidadeko ekintza erabilli bear, kristau-sustraiari zirrikiturik aal izateko. Gaiñera mixiolariak bere buru2 egokitu bear islamitarren bizi-moldeari.

Orregaitik agindu au ematen die beure semeeri: arabe izkeera erabilli beti eta kabilena, iñoren laguntzarik gabe, interpreterik gabe, itzultzaillerik gabe. Eta ez dute bein ere frantzesez itz bat ere esango. Orretzaz gaiñera, arabeen bizimoldeari oso-osorik egokitu beuren buruak.

Orrela mixiolaria ikusten ba'dute euren mintzaira darabilela, euren antzera bizi dala janean eta pentzakeran, gogo onez artuko dute euren artean eta orrela apurka-apurka ateak ireki kristautasunari.

Lana benetako zailla eta gaitza, atzerritarrentzako biotza gorrotoz beteta bait zuten arabeak garai artan.

### KABILETAN

1873'garrenean Djurdjura aldeko errikkak dira aukuratuak apostoladutza egiteko. Kabilatarrei erlijiorik ez aitatzeke ere, agintzen die bere mixiolariei, eurak sinisten dituzten dogmak ez ba'dira: "sendatzea eta erakustea, orra apostoladutza guztia, egia eta maitasuna." Erakustea, umeeri eskola ematea zan. Besterik ezer ez. Erljio-erakutsirik ez, iñolaz ere ez: ez agerian, ezta bakarka ere, iñungo aitzakirik gabe. "Ez da iñor kristau

egiteko ordua, biotza maitasunez irabaztekoa baizik: ortik at egiten dezutena, lan guztiak alperrik galtzea izango da..."

## MIXIOLARI BERRIAK

Lan onek langille bereziak eskatzen zitun eta orretarako 1868'garrenean seminario bat eraikitzen du. Zertarako? Mixiolariak arabe eta beste Afrika'ko errien arauera bizitzen ikasi dezaten. Eurak joango dira Argelia-egoaldeko basamortuan aurrera Senegal eta beste erri beltzen artera...

Arabe-antzeria jantzi zitun: soñeiko zuri luzea eta orren gainean kapa zuria. Apaizak, agerian eta bular-gaiñean, errosario bat; apaizak ez ziranak, berriz, leku berean, gurutze gorri bat.

"Emengo mixiolaria gorputzez afrikar bear du izan, eta gogoz, kristau." Orrela jantzitako mixiolarietara bilduta zeuzkaten umezurtzek egin zieten arrera zoragarria izan zan. Lavigerie'k arrazoi.

## EMOITZAK

Egokitasun onen emaitzak ugariak izan ziran Kabilatzen artean. Bostgarren kristau ziranak, gerora musulman eta orain berriro kristau izaten asiak... Ogei urte igaro baiño lenago giroa sortuta zegoan kristau-dotriña argi eta garbi erakusten asteko erlijioaren eta Elizaren kondairaren bitartez, dotriña-libururik eskuetan ipiñi gabe.

Pixkana-pixkana kristau egiten, kristau-giroa sortu zuten mixiolari aiek Kabilatan, bataio, ezkontza, illerri-kristau eta abarren bitartez.

## EMAKUMEA MIXIOLARI

Bereala konturatu zan Lavigerie gizonen lana ez zala naikoa eta emakume arabeak emakume kristauak bear zitula bere laguntzarako... Emakume batek erreza-egoa ikutu zezakeen beste emakume baten biotza eta arabeari bere nekeetan lagundu...

Pentsa eta egin: andre Mixiolari Zurientzat lekaidegia sortu zuan 1869'an Arjel'en bertan. Euren kargu egongo ziran gaxotegi, umezurtzen-etxe eta eskolak.

Bada kristau-errian "Sodalicio de San Pedro Claver" deritzan elkarte, mixioetara joan gabe, mixiolarien alde zuurki jokatzeko duena. Lucerna'n sortu zan: Esklabotasunaren aurkako Kongreso eratu zan eta bertan Lavigerie'k itz egin. Berba aiekin zirikatuta Maria Teresa Ledochowska kondesea etorri zitzaion eta topaketa artatik sortuko zan Mixioen aldeko elkarte berria.

## MIXIOLARI-ARAUAK

Bere mixiolariantzako arauak berak ematen zitun; baiñan, orretzaz kanpora, bakoitzari ere idazten zien bere aolkua emanezeta gogoa jazoz... eta euren lane-

tarako dirua Europa eta Canada'n eskatzen zuan bertara apaizak eskean bialduta. Arjel eta beste Ifarraldeko Afrikako errietan amar milloï urrezko franko banatu zitun.

## AFRIKA ERDIRA

Ebanjelioa Afrikaren ertzetatik zebillen, baiña Afrikaren biotzik ez zuan ikutu oraindik.

1878'garren urtean Livingstone eta Stanley esploradoreak Kongo inguruetakoa beuroen ibillaldiak amaituta zeuzkaten. Ibillaldi oien ondorio bezala Nazioarteko Elkarte bat eratzea erabakita zegoan erri aieri zibilizazioa eramateko: europar arteak, produzio-bideak eta sal-erosketak batez ere.

Asmo oiek orrela zirala, Lavigerie'k Aita Santuarengana jo zuan, Elkarte orrekin batera mixioak sortu bear zirala esatera. Eta bera, bere seme-alabekin, prest zegoela toki aietara joateko. Pio IX' garrenak esandakoa onartu zion, baiña, erabaki ori aurrera eraman baiño lenago, il zan.

\* \* \*

## LURRALDE BARRIAK

Odoren etorri zan Leon XIII'garrenak, Otsaillaren 4'an, 1878, Mixiolari Zurieiri Victoria, Nyanza eta Tanganika zingiren inguru guztiak eskeiñi zizkien mixioak eraitzeko. Garai aietan zailtasunez betetako tokiak ziran aiek... luzeak eta zabalak.

Gazte batzuek pozik prestatu ziran lan artarako. Iru mixiolari bialdu zitun basamortuan zear Tomboctou zeritzan errira, ifarretik egoaldera; baiña, bidean erail zituzten. Bialdu zitun beste iru eta suerte berdiña izan zuten. Sahara'ko are legorrik kristau-odolez buzti ziran.

Une artan esan zitun Lavigerie'k itz auek:

"Euskalduna naiz eta mendia zuzenean igaro ezin ba'dut, zearka egingo det... eta tontorretik edo aldamentetik beste aldera igaro gabe ez naiz etsiko. Burugogorren entzutea ez dugu alperrik eramaten."

Erditik eta zuzenean joan ezin eta orduan egoaldek bialdu zitun: Marsella'n ontziratu ziran amar mixiolari Zuri itsasotik egoalderuntz, Afrika-kostatik zear. Eldu ziran Zingira Aundietara; ez, ordea, osorik taldea.

\* \* \*

## MIXIOLARIANTZAKO AOLKUAK

Mixio-postu berri bat sortzerakoan auek gogoan izan:

Arabeak esklabu-tratorako dituzten tokietatik alde egin mixio bat sortzerakoan, esklabutasuna ostropo galanta bait da kristauak egiteko.

Protestante-mixioa dagoen tokietan ez mixio-katolikorik sortu, naastea sor ez daiten bertakoen espirituetan. Alde egin amar kilometroan gutxienez.



Toki osasuntsua izan dedilla, jende-tarte onekoa eta emankorra lurra bertatik bizi aal izateko. Onartzen ez bait zaituzte, alde egin beste erri batera.

\* \* \*

**ERRITARREN IZKUNTZA**

Izkuntzari buruz:

Sei illebeta igaro ezkerko mixiolariak erriaren mintzoan berba egingo dute, euren artean ere bai.

Osasuna:

Bearrezkoa da eta orregaitik alde egin leku kutsatuetatik eta etxeak toki airosoan jaso.

Janariak:

Bertakoak izan bitez beti. Norberentzako norberak atera bear du jatekoa, Europa'tik edo Propaganda Fide'retik laguntzaren zai egon gabe. Orretarako lenengo egunetik asi matsondoak aldatzen, garia ereiten eta abar. Lan auetarako bearrezkoak dira Anaiak, mixiolariak eurak espirituen lanerako egon bear bait dute gorputz eta espirituz.

Dotriñari buruz:

Kristautasuna zuzenean erakutsi; baiña, ez gauza danak asieratik. Lenengo gizaki guztieri dagokiezan Jainkoarekiko egiak; ondoren Jesus'en berri eman eta Elizarena, eta kristautasunean oiñarrizko diran egiak. Egi oien ondorioak gerorago etorriko dira. Eragozpen aundienak eskontzatik datoz: poligamian bizi dira eta emazte bakar batekin konformatzea ez da erreza...

\* \* \*

**MAILLAK**

Biurtzeari buruz:

Elizaren asierako egitarauak berritu zitun Aita Santuaren baimenarekin eta irumailak ipiñi biurtze-bidean: eskabidea egiten zutenak, katekumenoak eta bataiatuak. Kristau-bizitzak eragozpen aundiak zitun giro artan eta aurrera egindakoak atzera egitean, eragozpen oiek ziralata, beste kristaudentzako beatz-topo izan ez zitezen, ortarako ipiñi zitun iru maillak.

Lehengoan erakutsiko zitzaien izakiaren oiñarrizko egiak, kristautasunaren argitan. Bigarren maillan, krista-

sunezko egi zakonak, baiña sakramentuetatik bat bakarra: bataioa. Eukaristia eta elizkizunik ez. Irugarrenean ez da sekreturik izanen.

Lehengo maillan gutxienez bi urte; eta beste bi, bigarrenean. Lau urte oiek igaro eta gero, eta mixiolariari egoki iruditzen ba'zaie, orduan eman bataioa. Zerbait alditan, ordea, ohea izango da bataioa eriotzako ordurarte luzeratzea; batez ere poligamia arazoan, emakume batekin konforme izango ez ba'dira.

\* \* \*

**EGINDAKOTIK ZERBAIT**

Lavigerie 1897'an il zan. Andik ogeita amar urte baiño lenago, Uganda'ko erri nagusian katedral berria eraiki zuten. Bear izan ziran milloi t'erdi ladrillu Mixiolari Zuriak egindako labetatik sortu ziran, uri nagusitik kilometro batzuetara, eta andik errira kristauak eraman zituzten beuren bizkarretan.

Nazioko agintariak an ziran.

Kantuak apaiz gai beltzek osatutako Schola Cantorum'en mende.

Kristauak bertan irureun milla baiño geiago ziran eta katekumenoak beste orren beste. Lurrak osasundu, bideak urratu, erri berriak sortu... Kristautasunarekin batera onura guztiak eraman zitun Lavigerie'k eta bere Elkarreak Afrikan zear...

Dei ukigarri bat egin zien Frantzia eta Eurlona'ko seminarioei, Afrika beltza Kristorentzat irabaztek 3. Bere deiari erantzunez etorri zitzaizkion mixiolari-gaiak Frantzia, Belgika, Holanda, Alemania eta Canada tik. Guztien biotzean asmo bakarra: mundu beltza Kristorentzat irabaztea.

\* \* \*

**CARTAGO'n ILLOBIA**

Il zanean bere gorpua Cartago ko eliz-nagusian eortzi zuten, berak aurretik bedeinkatutako illobian.

ARRINDA'TAR ANES



## BIZKARGI, MENDI SAGARATU

### LUR SAGARATUA TA JENTETZA

Leenago be iñoiz goratu izan dot Bizkaragi, aldizkari onetan. Ez da arritzekoa: azken gerran emen bai nintzan kezkatu, nire lagun batzuk gudarien arteko emen-txe bai dagoz obiratuak; eta, jakiña, arein espirituaren oiartzuna dantzut emendik ibiltzan. Zuk ez al dozu entzuten gure gudarien intziri ta abots indartsu ori? Zuretzat dira. Zapaltzen dozun lurra sagaratua da.

Atzo, orrillaren zortzia, Bizkargi'ko jaia ostera be. Santakruzta jaia illaren 3'an ospatu zan. Atzo baiña urren-go domekea izan zan, eta urren-go igandez, beti be, bere egunez baiña jai errime ta zaratatsuago egin oi da. Jentetza ikaragarria batu zan atzo, maiatzaren zortzian; nik urte askotan igon dot Bizkargi'ra alako jaitan, eta ez dot egundo ikusi atzo lango jente-txiñurtza bizirik; ez Franko'ren garaian be, gure ikurriña ainbat piñutan dindil ipiñi ta ikusten zanean be, atzo beste ume, gazte, andrazko ta izonezko, etzan ikusten. Uiol indartsu baten pareko ebillen jentea bideetan gora ta beera, ermita ondoko zelai zabala gizakiz bete-bete egiñik.

\* \* \*

### JAIA GERTATZEN

Ni be era bialdu nindun nagusiak, an 12'etan Meza emon eta Kristoren berbea ots-egin nengian. Ergoien aldeko bidea kotxeentzat arriskutsu dagolako, Gorozika'tik joan gintzazan, amaikak baiña leen ara elduaz. Orduko bazan jenterik gain aretan. Tabernak edariak eskinka ugari; errokillak saltzailleak be mai zabal luzeak edozer erakutsiz amar leku berezi. Ermita egalean kanpotik, Gernika'rantz begira, lau bat metro gora metalezko egoitza dotore jagi baten (emen emon naban nik mezea) kantari iñarduen Zornotza'ko trikilaria, ezker-rago beian Igorre'ko dozena bat gazte, ñabar jantzirik, "bun-bun", "bun-bun" txaranga soiñuan; eskumatik astomaitxo zerdaiñean "txalapartari" euskaldun gazte bi. Gero etorriko ziran beste zeregindun asko, jaiari eskatzen ebana emoteko.

\* \* \*

### MEZEA

Amabietan mezea egon oi da urtero, arimeari be berea emon bear jakolako. Ordua joala, mezea asten, meza-emoille, kantari, txalapartari ta jentetza ikaragarriak "Kanta Jaunari" abestuz. Emen doguz Zornotza'ko Koralekoak, abots eder, erriari laguntzeko; emen doguz Zornotza'ko iru txistulari, Udalak bialduta, Meza erdian "Agur jaunak joteko; emen nago ni taula gainean meza-jantzitan zuri, Aita Goiria, oraintsu Kolonia'tik etorritako mixiolaria, ezkerretik laguntzaille dodala. Eguraldi naiko atsegiña, laiño zarratua, goian eguzkia kuku, laiñoaren miesa urtu eziñik.

Txalo batzuk eta millaka pertsona sekulako ixiltasunean. Opari sutsu, bizi ta boizkorra opatu bear geuntson Aita betikoari, Kristok kalbario gainean legez. Eta euskalduna "fededun" beti ta nun-nai, atzo ikusi zan bezela. Bizkargi'n gitxi geratu ziran Jainko-opari atan parte artu bagarik: iñoz bazan olakorik, penaz biurtu zan, ziur, etxera.

\* \* \*

### ALKAR MAITE

Kantua amaira zanean, asi neban mezea, Koralak duinkiro erantzunik. Irakurgaia, Ebanjelioa... Gaia! "Alkar maite izan egizue". Berau nire omili-gai be. Labur ta mamintsu egiteko esan eusten. Bost miñutu ta kito. Nik abots zoli: "Azken urteotan euskaldunak lorrindu egin dogu alkar maitasuna; maitasunerako dan biotza, gorrotoz ta ikusi-eziñez asetu dogu. Garbiketa bearrean gagoz. Gerraldian emen jausi ziranak etziran olakoak; eusko erriari eutsoen maitasunez il ziran. Maite daigun geure erria; maitatu daiguzan geure anaiak. "Siñisten dot" eta erri-otoitzak.

Sagara amaikeran, "Agur jaunak" txistulariak. "Gure Aita" gero erri oso-osoaren biotz-dardara ta abotsez. A bai durundu zabala Bizkargi gainez, zeruperaiño elduz! Jaunartze bikaiña! Eroan genduzan ogi sagaratuak laster amaitu jakuzan, Goiriak eta biok jenteari banandu geuntsazanak. "Eskerrik asko, Jauna" abestuz amaitu gendun zero ta lurtean Jainkoari eskiñitako oñaria.

\* \* \*

### ERESTALDIA

Zornotza'ko Koralak jarraian "Beti maite", "Illunabarra", "Olandesak" eta abar abestu eben, jente mordo entzule ebela. Trikitilarien txanda bertatik, onein kantu ta soiñuz bizi-bizi gazteak, zarrak eta umeak, barne zirrara kementsu batek jota lez, dantza-dantzari asi ziran. Amuritza ta Lopategi bertsolariak gero alkarri eztenka, bat-bateko bertso biribil, sotil, mamintsu jentea poztu-azten. Luzaroko jarduna.

Ondoren be, orduak luzatuz, aspertu barik, musikari, dantzari enparau taldeak batzuk emen ta beste batzuk an, gogaitu barik jardun ziran. Ni ta nireak, irurak jota, berebil-zaiñak olari gurarik, beerantza asi giñanean be, an geratu zan erria jaiari gunak atera nairik. Oindiño be gorantza joian jentea, Gurutz santuari biotz-agurra egiten. Ezker-eskuma, bide egalean, bedartzen eta piñupetan, jentea ugari kilometroko saillean bazkari legea egiten. Atzera geratzen zan Bizkargi, gaineko zelai ta bertan jausi ziran gudari gazteen espiritua.

## LENAGO

Bidez gentozala nekez ikusten zan; laño-une trin-koak goizaldera, arratsaldera lodiago egiñik. Gurutzeta, Arburu, Gorozika, Zugaztieta, Autzagane'tik zear Zornotza'ra egiñik, itaunka genbiltzan alkarri: "Nok eratu dauku jai au?" Bizkargi'n beti izan oi da jente asko domeka orretan, baiña aurten besteetan baiño naiko geiago. Zergaitik ete? Zornotza'ko AEK zan batez be jai orretan eskua erabilli ebana. Txaloak merezi dauanari!

Asko-askotan izan naz ni Bizkargi'n, bertako jaietz eta urrengo domekan. Eleizaz eta erriz Etxanokoa izan da beti, gaur erriz Zornotza-Etxanoko ta eleizaz Larrako parrokikoa dan legez. Etxano'ko eleizatik urteten zan leenago erromes-taldea, pendoi aundia eroanez ta letaniak txandaka abestuz, bidean andik eta emendik, baserrietatik, jentetza polita erantsiten zala. Arburu baiño goratxuago, Gurutz-tokian, egotaldi labur bat egin oi zan, Etxano, Gorozika ta Areatza'koak bat-egiñik; ementxe banatzen ziran txantelak erromesen artean, "Udalak edo, edaria oparitzeko oitura zen moduan"; le enago, izan be, beste ermita askotan lez, zaragi bat eroaten zan.

\* \* \*

## ETXANO NAGUSI

Erromes guztiak tontorrean alkarturik, meza ospakizuna. Abade asko bertaratzen zan eta ainbat meza esaten. Meza asko ziran arren, Etxanokoena izaten zan azkena ta nagusiena. Etxanoko agintaria izan oi zan gaiñera meza ondorengo erromeria (asi ta amaituz) eratu eroiana. Onek ipinten eban ezaugarritzat ugeltzigorra edo txuzoa be. Nik ezagutu ez dodanarren, baiña leenago, Bizkargin Santakruz egunean bedeinkatutako gurutzak ipinten ziran soloetan.

Santakruz ermitea Bizkargi txuntxurrean egon da beti, gaur dagoan lekuan. Antxiñakoa oso, Juan Infantek 1.375'ko abuztuaren l'goan Labarretzuko erria erakitzeke emon eban agirian onela agertzen da: "...Garaitondo ta Bizkargiko Santa Krutz eleizatik Morga'ko olaraiño..." Azken gerratean apurtu ta austua izan zan, eta gero, Bizkaiko Aldundiak barriro eregi ta eleiz-ospakizunetarako zabaldua izan zan 1943'ko maiatzaren 16'an, arrezkero or argazkian agiri dan lez daukagula.

## BARRITU-BEARRA

Gaur 45 urte ondoren ba-dauka, ezta errigarri, atondu bearra, baita gogoia be erritarren artean eskuz ta lanez laguntzeko be. Baiña zelan jakin ez. Orren zailla al da barrizatzea? Itxura danez, bai! Ezta zer aundirik bear dauana. Leen tellafua eukan, baiña apurka apurka gaiñ-azal barik gelditu jaku. Ormak arrizkoak ditu ta gaiña zementozkoa, eta edurrak, izotzak, euriak eta aizeak, estalki bage dagoalako, ormak eta gaiña ezotu, umeldu ta baltzitu egin dautsoz. Taiu txarra dau orain, barrutik batez be.

Ez, ezta erreze zegaz edo zelan estaldu asmatzea. Aize zakarrak jo oi dau gaillur-gaillurrean dagoan ermita gaiñean, eta au etsai biurra dozu; ba-da, alan be, beste etsai bat, biurragoa nik uste; ara igon eta an eguna igaro oi dabenak aragi-zafalak erretako nai izaten dabez bertako teillak... Basa-eleizatxo ori ta beste antze ko asko egoki ta txukun eukiteko, ederrena giza-eziketa ona danarren, au lortu eziña bada be, merezi leuke ermita onek barrizatze alegintsua.

\* \* \*

## ZERK ERAGINDA?

Guretzat, euskaldunontzat "santutegi" bat da Bizkargi. Gerra garaian alderdi bikoien odolez asetua; beraz, ez daigun euskal arimea zapatu ta lorrindu. 1965'ko urriaren 17'an ementxe ospatu zan Lenengo Gudari Eguna. Emendik ikusten dira, egokiro, Gernika ta Bizkaiko mendi-gaiñ zoragarri geienak.

Euskaldun maite, esaidazu: Zergaitik etorri ziñan atzo Bizkargira? Biotzgain, eskua, erantzun eidazu. Zer-edo-zeren billa etorri ziñan. Interesgarria dozu itaun oni ezarriko dautsazun erantzuna. Zerbaiten atzetik atzetik zabiltz. Iñoiz ba-diñozu: "Eta sinismena?" Orixen, egunez egun Jainkoaren billa gabiltz. Baita atzo Bizkargira igon eben geienak be. Fedeak eraginda ebiltzan. Jainkoa ixillik dagoala? Bai, baiña an jente artean agiri zan Jainkoa, mezatan, kantuan, dantzan...

Nik, batez be au ikusi neban: edonongo santutegi ospetsuetan, euskalerrian eta kanpo-errietan egin oi dabena, au da, ermita barruratu ta zerbait errezat ostein, altara nagusira urreratuz erdiko Kristo gurutz-untzatuari mun gozatsua emon, eta beeko platerean limosna ezarri. Onek ez ete diño ezer?

AITA ONAINDIA



# KULTURA, KULTUR = SEPULTURA, SEPULTUR

Nire gazte denporan gitxi erabilten zan "kultura" berbea. Erderaz gitxi ta bapez euskeraz.

Ez dakit berba au erabilteko oiturarik ez egoalako ala izen ori emoteko gauza gitxi egiten zalako zan; beintzat euskeraz ez zan erabilten "kultura" berbea. Euskal idazleren bat berba orren premiñan arkitzen ba'zan, zana zan berbea euskera garbikoa izan eiteala aleginduko zan.

Gero asko indartu da berba ori. Euskeraz be berba ori erabilli bearra izaten dogu. Baiña bai berbetan eta bai idazten erderazkoa erabilten dogu: "kultura". Olan-txe, beti "a"gaz amaitzen dala erabilten asi giñan.

JAKIN aldizkarikoak "Kultura Jardunak" ipinten eben aldizkari onen azalean. Eta beste zenbaki batzutan "Euskal Gaztedia Kultura Bideetan". Eta barruko idazlane-tan be geienetan berba au olantxe etorten zan: "kultura".

Gero, artikulorik bear ez dabenean-edo ez dakit noiz (gitxi dakit gramatikan) "kultur" idazten asi ziran.

Ez jatan atsegin izan berbea olan laburtzea, arrotz egiten jatan. Gero, jokera ori, zabaldu egin zala kontu-ratu nintzan. "Kultur astea", "literatur sariketa", "arki-tetur etxea", "kapitalist erriak", "artistik eziketa", "pin-turgintza" ta abar idazten zala ikusi neban.

Eta jokera orren aurka jarri nintzan. Ta olako berba bikoak erriak zelan esaten zituan ikusi neban. Ta baten Euskaltzaindia'ko batzar baten txostena irakurri neban. Erriak olakoak berbarik laburtu barik esateko oiturea ebala erakusten alegindu nintzan. Ta pillo bat agertu nituan. Ara eurak:

patata sakua  
pintura potua  
arbola sailla  
antxoa kaja  
makiña fabrika  
goma fardua  
jesuita taldea  
eskoba kirtena  
maluta txortea  
teilla fabrikea  
masusta lorea  
abarka narrua  
baba lapikua  
aizkora jokua  
larrosa usaiña  
aza kirtena  
ezpata dantzea  
kipula kordea  
gaztela matsa  
eskola maixua  
ta abar.

Ez nebala uste iñok "malut txorta", "masust lorea" ta abar esaten ebanik esan neban.

Laster izan neban erantzuna. Nik aurkeztutakoak alan izan arren, izkia kendu ta alkartutakoak asko zira-la, "iturmendi", "iturgoien" da abar.

Bai; egia zan nire aurkakoak ziñoena. Baiña nire esanetan errezoia ba-egoala uste dot, naita ezin azaldu. Idazle on batek oraingo jokerari jarraituaz "mez berria" edo olakoxe zerbait idatzi eban. Ta ez; "meza nagu-sia", "meza berria" ta olantxe esan izan da beti ta ezin leiteke aldatu.

Euskaltzaindia'n irakurri neban txostenean beste geia-goren artean au esaten neban:

"Itzok, asko, kultura itzak izanik, gure aurrekoak zelan esaten zituen ezin izango dogu argitu, erabilli be ez zituelako egiten. Ez dot uste "kultura" itza berau, nire aitak eta amak bein be erabilliko ebenik, ez ezagu-tu ta ez beronen premiñarik izango ebelako."

Baiña ba-da berba bat "kultura" berbearen azken bardiña daukana ta antxiñakoa dana ta asko erabillia: "sepultura". Bai, berba au asko erabilli izan da Onda-rru'n. Senidetzak aspalditik euren toki zientauak zituen eliza nagusian urte barruan il ziran senideen alde otoi egiteko argizaiolaren argitan. Toki aren izena "sepultu-rak" zan, ez euken beste izenik. Amabost urte inguru dira kendu zerala sepulturak, andrak zituen bakotxaren aulkitxoak kendu ta orde zaulki andiz eleizea bete zanian.

Ikusten dan lez, "kultura" itzaren atzealde bardiña dauko "sepultura" itzak be ta arek artu leikezan atziz-kiak artu leikez.

Au da "kultur" esaten dan kasu bardiñetan "sepul-tur" be esan leikela dirudi. Baiña iñok ez dau sekula "sepultur" idatzi ta esan be. Ez dakit gramatkarik eta ez dakit "sepultur" olan laburtuta esateko kasurik ete dan. Dana dala, barriro be ba-diñot, olakorik ez esan ta ez idatzi da sekula.

Ara zelan idatzi daben lengo ta oraingo idazleak.

"Piramidea edo Piramideak ziren sepultura suerte batzuk, pilare, harroin, edo thonba laur kantoinetako gora ailtxatu batzuk..." (GERO)

Umezurtze triste eguinic  
Gagoz Aita bagaric  
Ya dacusgu Jesus illa  
Sepulturaren sarturic. (ESCU LIBURUA, Añibarro)

"Calizac adierazoten dau Sepulturea; eta Patenac Sepultura -arri-estalia."

"Altaraco zamaijac, ta Corporalac, Cristo Sepulturan batu eben izara, ta icercaria." (ESCU LIBURUA, Añibarro)

"Nora daroe? Elexara, Sacerdoten laguntzan; ceintzuec esanic erregute gitxi batzuc, sartuten dabe sepulturan." (ESCU LIBURUA, Añibarro)

"Zoaz gaur Elexa batera; eta adoraturic Jesus Sacramentadua, gueratu-zaite Sepultura baten ganean." (ESCU LIBURUA, Añibarro)

"Oin bategaz sepulturan jaraok, ta bestiaz inpreñuban." (PERU ABARKA)

"Eleizan, illobi edo sepultura gaiñean, argia bakarrik lagatea... pekatu ez ba zan be, atakotzat artuko eban

etxeke ardua eukanak, familiako ordezkari geratzen zanak." (LAIÑOAK MUNDAKAN, Augustin Zubikarai)

"Parrokoak azken abisua emona eukan; bestien antzera ogirik eskintzen ez ba eban, berak illobi edo sepulturako eskubideak kendu egingo eutsazala." (LAIÑOAK MUNDAKAN, Augustin Zubikarai)

Atsegin izango litzakit euskera zarra ondo dakian norbaitek, aita Akesolo'k edo, gaiari erantzungo ba'leutso; "kultur" berbea yauskera batzutan ondo dagoala ta bardin "sepultur" berbea be kasu batzutan ondo esana izango litzakeala edo guztia alderantzira esaten.

KAMIÑAZPI

**ZER****ALDIZKARIA**

- ILLEROKOA (MENSUAL)
- BIZKAIERAZ IDATZIA (EN BIZKAINO)
- ERRI-JAKINTZAREN GAIAK (MATERIAS POPULARES)
- IRAKURGAI ERREZ-ERREZAK (LECTURA FACIL)
- ARAZO SAKONAK AZTERTUTA (ANALISIS DE TEMAS;)

**ARPIDETU ZAITE !**

ZER  
EUSKERAZALEAK

Colón de Larreátegui, 14 - 2.º - BILBAO-1

## FRANTZI, KALEDONI BERRIA ETA EUZKADI

### EUSKALERRITIK MUNDURA BEGIRA

#### KALEDONI BERRIA

Azkeneko denbora auetan sarri entzun dogu Kaledoni Berriaren izena, eta sarri entzungo dogu emendik aurrera ere.

Kaledoni Berriak eta Euzkadi'k badabe politika-giroan alkarrekingo kidetasun aundia. Merezi dau beraz gure begiraldi bat urrutiko lurralde arek.

Aurretik ordea, ikusi daigun lurralde ura zer dan eta non dagoan.

Kaledoni zarra, Inghlanderrian dago. Izen orrekin deitu eutsoen ba erromatarrek Inghlanderriaren iparraldeari.

Kaledoni Berria, Pazifik-Itxas nagusian, Australi'tik sortalderuntz, 1.500 kilometrora dagoan ugartedi bat dogu. Cook mariñel inglandarrak eman eutsan izen ori; bera izan bait zan, 1774'ean alderdi aietara aurrena iritxi zana. Aren atzetik, 1843'ean frantziar mixiolari katolikoak agertu ziran ara, eta amar urte geroago, 1853'ean, beretzat artu ebazan, ugarte aiek, Frantzi'ko Jaurlaritzak. Eta izenez aldatu: Nouvelle Caledonie.

Orrela, lurralde batek jasan daikean okerrik aundiena, gertatu yakon Kaledoni Berriari: Frantzi'ren edo Españi'ren menpera jaustea.

\* \* \*

#### NEURRIAK

Bat izan ezik, ugarte aiek oso txikerrak dira. Aundienak, 8.548 Km. laukoi dauz (10.421, Naparroa'k; 7.261 Ego-Euzkadi'ko beste iru lurraldeek).

Lurrez, eta batez ere lurpez, toki aberatsa da Kaledoni Berria. Bere aberastasuna, batez ere meakietatetik datokio. (Nikel-meatzetatik aberastasun orren bostetik laua: 4/5).

Eun milla biztanle dauz. Erdiak, bertako kanaketarrek; beste erdiak frantziarrak geienak, baiñan baita Frantzi'k Bietnan'dik-eta aruntz eramandako langille morroiak ere.

\* \* \*

#### KIDETASUNAK

Egiatzko Kaledoni Berriro jendeek, kanaketarrek, askatasuna nai dabe. Orra or Kaledoni Berriaren eta Euzkadi'ren arteko kidetasun bat.

Baiñan ez dabe askatasunik Iortuko, edo beintzat oso gaitz egingo yake askatasun ori lortzea. Orra bigarren kidetasuna.

Zergaitik egingo yaken —eta egingo yakun— ain gaitza? Gaur bi lurralde auen jabe diran Laterrien zekentasanaren erruz. Orra or irugarren kidetasuna.

\* \* \*

#### ASKATASUNA

Ez da oraingoa kanaketarrek askatasuna lortu nai izate ori. Len ere, jagi bait ziran bein, frantziarren jaurketaren aurka. Zapalduak izan ziran. Eta ori gertatuko yake oraingoa ere. Zergaitik?

— Kaledoni Berriko ugarterik aundiena ere, txikia dalako. Egia da Txipre bera ere ez zala ugarte aundia, eta Kaledoni Berria baiño txikiagoak dirala Karibe-Itxasoan askatasuna lortu daben ugarte asko; Grenada, adibidez, edo Barbados, eta orrela beste batzuk ere. Baiñan ugarte auek danak, Inghlanderriarenak ziran. Inghlanderria, ordea, ez da Frantzi!

2.<sup>a</sup>: Auteskundeetan kanaketarrek beiñere irabaziko ez dabelako. Ori —auteskundeetan auek irabaztea gerta ez daiten—, kolonizatzaill berriak eraman dauz Frantzi'k azkeneko urte auetan; eta, bere Indotxina (gaurko Bietnan) gauldu eban ezkerro, lanerako, Tonkin, Annan eta Kotxintxina'ko jendea ugari. Baita Filipinetatik eta Indonesi'tik ere.

Jende auek danak, zertik-bizi galduko dabelaren bildurrez, fantziarrei ematen dautse beren autarkia.

Orrelako zerbait gertatzen yaku emen ere: azkeneko ogei ta amar urte auetan atzerritar asko etorri yakula. Ez dira Españi'ko Jaurlaritza'k ekarriak izan; eusko-kapitalismoak baizik. Emankorra goa —diruz emankorra goa—, bait zan langille merke aiek ekartzea ola berriak langaillu berri egokiez ornitza baiño.

\* \* \*

#### ETORRIAK

1961'garren urtea zan. Eusko kapitalista batek, "baze-kiala, irikitza zijoan olak amar urte beesterik ez ebalan lanean jarduterik izango" esan eustan. "Baiñan —nik—, Extremadura'tik ekartzera itxaroten dozuen langille oiek lanik gabe geldituko dira"! Eta berriro arek: "Estaduak-

edo, artuko dauz norbaitek bere kontura". Ostera nik: "eta atzerritar oiek emen Euzkadi'ri egin daikeoen kaltea"? Eta berak azkenean: "A Cantalapiedra oiuka, beren errira jaurtiko doguz danak emendik".

\* \* \*

## BERTAKOTU?

Kanaketarrak badabe guk ez dogun eragozpen larri bat. Auteskundeetan irabazteko, frantziarrak ez diran atzerritar guztiak kanaketar biurtu bearko leukeez. Baiñan asiatar oiek ez dabe kanaketar biurtu nai. Beren kultura kanaketarrena baiño aundiagoa bait da.

Emen ordea, etorri yakuzan españiarrak, geienak beintzat, errez euskotar egin daikeguz, kulturaz euskaldunak baiño beeragokoak diralarik, atsein bait yake beren buruak euskotar agertzea.

"Euskotar egin", esan dot; ez, "Euskaldun egin". Emen —o! mirarizko gauza—, kultura ederragoko jendeok, kultura gutxigoko jendeen izkuntza artzen ari bait gara, gure izkuntza ederra eriotzara galduta.

\* \* \*

## BURRUKA

Auteskundeen bidez askatasunik lortuko ez dabela ikustean, indarkerizko bidera jo dabe kanaketarrek. Eta ori egitean, arazo bikoitz bat eskeintzen dauskue gure aterketa-lanerako:

— Zuzentasunaren aldetik, kanpotik etorri yaken jendea kanaketar biurtzerik ez daben ezkerero, zillegi al yake kanaketarrei borrokara jotzea?

Baiñan, atzerritik Kaledoni Berrira etorritako langille oiek edo Frantzi'tik etorritako kolonizatzaillae oiek, bai al dabe Kaledoni Berriaren etorkizuna jokutzen dan auteskunde batzuetan parte artzeko eskubiderik!

Kanaketarrek ekarri ez dabezan eta kanaketarren zanpatzaille diran jende oiei, kanaketarren askatasuna zanpatzen jarraitu aal izateko, auteskundeetan autarkia emotea, ez al da opresioaren alde, ots, zanpaketaren alde, lan egitea?

— Egokitasunaren aldetik, au da arazoaren muiña: Indarkeriaren bidez lortu al daikee kanaketarrek askata-

suna? Ez, noski. Frantzi ez bait da Inghlanderia arrazoiaren aurka indarkeria erabiltzez lotsatzeko. Euki beie gogoan ori, gure arteko indarkerizaleek. España eta Frantzi ez dirala Inghlanderia.

\* \* \*

## BATASUNA BEAR

Gai batean bakarrik dagoz kanaketarrak euskaldunok baiño obeto. Gu zatiturik gagoz. Aiek, ez.

Euskotarrok nai-ta-naiezkoa dogu, ostera Sabiñ'an Alderdiaren batasuna bir-osotzea. Guk irabazi daikeguz Euzkadi'ren onerako, azkeneko ogei ta amar urte aue-tan etorri yakuzan atzerritarrok.

Zergaitik ez dira Sabin'en Alderdi zatitutako buruki-deek ekintza ortara jartzen? Ori lortzen ez ba'dogu ez dogu askatasunaren bidean ezer egiterik izango. Orixe dogu beraz, Aberriaren askatasunaren bidean ekintza garrantzitsuenetan garrantzitsuena.

Argi erakutsi dauskue gure politikolari eta buruki-deek Alderdi zatitua ostera bat egiteko ez dabela balio. Alderdi bat aurkitu eben Alderdira etorri ziranean. Bi puska egiñik utzi dauskue Alderdia!!!

Utzi beie agintaritza. Lotu bediz abertzaletasunaren zabalkundera, Euzkadi'n jendea, dana, edo beintzat geiena, abertzale biurtu daiten. Ekintza au garrantzi aundiagokoa da beste ura baiño. Eta beste ura —agintaritza—, egoki erabiltzeko, badauz Alderdiak izkutuan alderdikide bikaiñak. Bedi Ardantza bera, esan dodanaren adigarri.

Franko il ostean Alderditik jendea irten zanean, baeban zisma arek egiazko arrazoia, irten ziran zatiak (E.E. eta H.B.) komunsitak bait ziran. Baiña bigarren zatiketa onek ez dau pertsonalkeri utsa beste arrazoirik. Ez dot esango nor dan zatiketa ontan errurik geiena dauna. Geiago edo gutxiago, zatiketa mingarri onen oben iguingarri ontan danak bait dira obendun eta errudun.

Madarikatua izan bedi Alderdia zatitu zan eguna!

LATIEGI'TAR BIXENTE



# BERTSOETAN

## BARANDIARAN

Mutil gaztea ziñan aldian  
esnatu ziñan lurrean,  
argi ederrak sortzez arturik  
Ataun goiko tontorrean;  
mendiak eder ager jatzuzan  
bizitzaren aurraldean,  
oro opaka, bai ta-re deika  
buruaren almenean.

Mundu eder bat susmau zenduan  
bitxi ederrez josirik,  
Euskalerriko bizi guztia  
gallur ta zelaiz jantzirik;  
Barandiango buru argi bat  
dana ametsez beterik,

ekintza luzez katei eder bat  
pozik, geroz, osoturik.

Gazte gazterik ura zan poza,  
ura gogoia zurea,  
jakintza bide eder bateri  
emon bear zeuntzan sua;  
barruan zeunkan txinparta garra  
izarra bezelekua,

lur azpi oro gogo onenaz  
argitzeko aiñakua.

Euskalerrria begira zeunkan  
alan Europa guztia,  
gorputz osoaz gogo argiaz  
aztertzen zendun bizia;

millak urteak azur ta tresnaz  
argituz giza-bidia,  
era orretan sortu zenduan  
munduko giza-iztia.

Ta nor zara, zu, Santimamiñe,  
euzko lurraren kabia,  
gure arbaso agurgarriak  
or sorturik izkuntzia;  
arrigarriri agertu ziñan  
bizirik bizi luzia,  
ez zaitez galdu arbaso aren  
zoragarritzko ELIA.

PAULIN

## ONTZA

Ontza koba ondoko enbor lodiko  
arte urtetsu baten adar ganean  
egoten zan ixil-ixil, begirari,  
sagutzuren bat edo noiz etorriko  
eguzki bako gau illun itzalean,  
asiera noiz emongo bere lanari.

Ontzaren begi dirdirakoi, bigunak,  
eguzki izpirik ezin dabe jasan  
ta, orregaitik gabaz dabiltzu eizan  
itsurik izten dabelako egunak  
ta, alde egin bear gero, berealan  
aurkitutzeko estal-leku illunak.

Auzokoaren ollarrak ordea arro,  
mirestutako bere ollo aurrean  
datorren egunari agur dagitso,  
abotsa jazorik arginabarrean

kukurruku zoliz, odeietaraño,  
ontza egunaren igesi doanean.

Itzartuz dator egunazko mundua  
udabarri zantzoz, alai, berein zozo  
eta, bidegarruren abes, txorrotxiva  
edatzen zalarik etxeetako kea  
bizitz agerpen, erakusbiderako,  
goizeko otordutzaren goibidea.

Urteak, joanak dira urte asko  
ta, itzuli naizenean lengo ara,  
an, ez daurkit arte lodi urtetsuaren  
ontzaren aztarnik, iñundik iñora,  
ta, amesetea balitz lez, emen nago  
gogoan dodazan ikuspegiatar  
joandako egun-barruz begiratzen.

MUNIAITEGI-TAR SABIN

## ITZA

Izatearen giltz "asieran ba zan itza";  
bere indarrez munduan da oro egina,  
joan ariak lotzeko kate autsezina,  
Jainkoaren ale-mandioetako giltza.

Itza bide bastertu dau gizonak joputza,  
berak gailentzen egunoroko alegina,  
berak asetzen arimaren egarri-mina  
oreinak iturrian lez eraso oste latza.

"Onetsia bedi Jaungoikoaren izena"  
Jaungoiko da ta berebat. Itza dala bide  
sortarazi bait eban mundu au asieran.

Itzarekin, Jainkoaren antzera, gizona  
be bardin da bere ideien mamin egile.  
Ez egizu ba da zikin du utsaren truke.

## ERIOAREN BIZITZA

Euria soilik antzun ta senti ba naizena;  
mundu osoa lanbro biurtutakoa  
t'ene barne muina goian apar antzekoa  
tangadarik tangada betez Zatorkidana.

Soillik niregan bizirik den dana,  
euriak urtu daroast ikuspen osoa,  
lezean dabilkit uraldien eraso  
ta ur-erlojuaren igotze nabarmena.

Mutu-mutu dabilkit joanaren oroitza;  
nire gogoaren betea utsaren utsa;  
ez darabilt lantzarik, ez ere erredolik.

Ene patua daroat aizeen eskutik  
ta bizitza au ain narrugorrian bizirik  
ez ete da gero bizitzaren eriotza?

UNAMUNO'renak  
EUSKERAZ: BIDAGUREN'ek



## ECUADOR-TIK

Jesusen Lagundiko Aita Bollegi Jose Mari, mundakarrak, eskutitz au bialdu deust, Ecuador lurraldetan berak egin dituen lanak eta nekeak agertuaz.

\* \* \*

### SEIGARREN ALKARGOA

Onela dau izena Amazonas-eko baso itsuan gordeta dagoan erri txiki onek.

Araño joateko egurrez egindako metro bateko zabalera dauan zubi antzeko baten gainean ibili bear da. Sei kilometroko zubia. Bide onen bi aldetan lokatza, eta egurrak bustiaren bustiz laban-laban. Bi aldiz jausi nintzan basatzara. Baiña bi ordutan bolatinak egiten ibili ondoren, azkenean eldu giñan errira. Sargoriak jota, gutziz nekatuta etorri nintzan. Bi ordu etzunda egon ondoren indarrak artu nebazan.

Elizatxora sartu nintzan. Egurrezkoa zan. Au poza!, jendez bete-beterik leporaino egoan. Itzaldi bat egin neutsen, esanaz: Jaungoikoa maitasuna zala, gizon-emakume guztiak Jaungoikoaren seme-alabak garala, eta orregatik senide legez alkar maite bear dogula... An egozan guztiak adi-adi entzuten eusten. Jende pobrea, baiña biotz onekoa da.

Aspertu arte, luzaroan, abestu eta otoitz egin genduan. Gabaz lotara joan nintzanean, au poza!, basoaren isil-kantua entzun neban. Nire gelara epertargi antzeko egolari batzuk sartu jatazan. Egodun oneik buruan argi bat dauke eta linterna txiki baten antzera nire inguruan egaz argi egiten eben.

Ango lanak amaituta itzultzerakoan, ostera be, egurren gainean dantzan, oiñak non ipintzen nebazan ondo begiratuta...

Txakur zuri andi bat bidera etorri jatan. Nik maki-laz jota bidetik aldendu gura izan nebanean, nigaz zetorren katekistak esan eustan: Ez jo, indioen txakurra da-ta. Emengo jendeak abereak asko maite dabez, eta txakurrari kalte egitea eurai Kalte egitea legez artzen dabe.

\* \* \*

### EBENECER

Erri txiki au protestantea da erdi batean. Salesiatar abade bat joaten jake katolikoei bi illebeterik bein meza emotera, besterik ez. Baiña katekista zintzo bat bizi da bertan, eta onek zaintzen ditu ango katolikoak. Urte bete da alargundu zala, eta bost seme-alaba ditu eguzkia baiño ederragoak. Elizatxoan Meza emon, eta kantuan eta otoitzean emoten genduan astia. Bost metroko

gurutze andi bat egin, eta gurutz-bidea egin genduan erri inguruan. Jende ona da, baina erlijioan ez jakina, eta ikasteko egarriz dagoena. Agur egiterakoan batek baiño geiagok negar egin eban.

\* \* \*

### URRILLAREN IRU

Erri txiki onen ondoan dago Sangai'ko "LATERRI-ZUGAZTIA" dalakoa. Orregatik inguru onetan ezin da ez solorik landu, ez erein, ezta zugatzik bota be. Emendik igaroko da Quito'tik Macas'era doan autopista ederra. Orain emendik Quito'raino joateko, Cuenca'tik zear, amasei ordu bear dira. Bide-zabal au urratzen danean bost ordu naiko izango dira bide ori egiteko. Ecuador'ko estadua aurrera doa, baina astiro. Astiroegi gaurko egunerako.

Erriko jaiak ziran ni ara joan nintzanean, eta orregatik jende gitxi etorri zan eleizara. Azkenengo egunean illerrira joan giñan. Emengo jendeak illentzat ikaragarriko goraintziak daukaz. Orregatik kanposantua illen alde otoitz egiteko bete bete egin zan.

\* \* \*

### KURUTZEA

Erri onetan "JEOBATARRA" dalako bategaz aurkitu nintzan. Bere bost urteko semetxoa bateoa artu barik il jakon, eta aita biotza urratuta egoan. Nik negar baten ikusi neban. Nik, mutila ona izan zala, eta Jaungoiko-zalea be bai, esan neutsan, eta orregatik borondatezko bateoaren bidez salbatu egin zala. Au entzunda aita asko poztu, eta bere etxera bazkaltzera joateko eskatu eustan, baita ni pozik joan be areri zerbait onik egiteko asmotan...

Urrengo egunean, ostera, andia izan zan nire tamala, gizon a, ber-bera, katolikoan artean bere lengo dotriña erakusten ikusi nebanean. Nire poz guztia pikutara! Ni ez naz iñoz be protestanteakaz, edo beste erlejiño-koakaz, eztabaiadan sartzen. Maitasuna da gizonen artean geien balio dauana, eta erlijioari buruzko asarreak eta gorrotoak, inoz be ez dabe mesederik ekarten.

Katekista batek, arren eskatu eustan bere etxera joateko. Bere aita zarra larogei urtegez mozkortzen asi zala eta bi urte daroaz, esan eustan, eguneroko mozkorean. Ni bere etxera joan nintzanean agurea bere oean egoan. Gozo-gozo esan neutsan: Aitita, geiso errukarria zara, zure osasuna galdu dozu, zure sendia ondatzen dozu. Egizuz alegiñak geiago ez edateko. Urrengo egunean eleizara etorri zan. Autortu eta jaunartu eban. Nire eskuak bere buru gainean ipiñita, danok bere alde

# BARRIAK

otoitz egin genduan. Eleizakoak emon neutsazan, eta gero esan neutsan: ementxe zure etxekoan aurrean agindu egizu ez dozula geiago alkoolik edango. Eta alan agindu eban. Azken egunean aguretxo errukarriak agur egiterakoan negar egiten eban.

\* \* \*

## GONZAGA'tar LUIS DEUNA

Upano ibaia igarota ordu erdi barru autoan erritxo onetara eldu nintzan. Ango bizilagunak, gitxi izan arren, bi alderditan banaturik aurkitu nebazan. Alkatea eta parrokoa aspalditik asarre. Abadea prest egoan gauzak konpontzeko, baina beretik ezer emon barik, bere kontzientziak ez ei eutsan olakorik eskatzen; eta alkateak be beste olako zerbait iñoan.

Eta andiak zatituta ikusirik, txikiak be "zer ikusi, a ikasi", bi aldetan erdibituta egozan. Azken egunean gurutz-bidea egiterakoan erriko umeak gurutze bi, talde bakotxeak berea, ekarri ebezan, Nire itzaldiaren mamia au izan zan: Kristok alkar maitatzea agindu euskula, eta otoitzak ez dauela ezer balio biotzetan gorrotoa dagoen artean.

\* \* \*

## ANTZARRA

Au da Ecuador'eko lurraldetan aurkitzen dan Andre Mariaren santutegirik ospetsuenetariko bat.

Ni joan nintzan egunean Andra Mariaren "errira etortzea" ospatzen zan. Asteguna izan arren 30 milla lagunek, asko ortutsik, lagunduten eutsan Andra Mariaren irudiari 32 kilometroko bidean zear.

Nik lenengo egunean bakarrik lagundu neutsan, baina norbaitek esan eustan santutegitik erriraino 76 kilo-

metro egozala, eta askok iru egunetan laguntzen eutsala Andre Mariari, penitentzia andiak bidean eginaz.

Bolibar'en aldikoa dala diñoen oitura eder au. Jendearen fede bizia ikusita nire biotza pozez bete zan.

\* \* \*

## JIMBITONDO

Ecuador'ko sortaldean dago... Aitatxo, esan eustan bertako batek, kontuz gero!, autoaren atea ez daukazu ondo itxita. Jo gogor eta bultz egin, indioak bere emaztea jotzen dauan legez.

Eta nik: zer ba? Gogor jotzen ete dabez?

Eta berak: baita merezi be. Senarrak ondo egiten dau. Emaztea berea da-ta. Amaika gauza ikusteko eta entzuteko gagoz, esan neban nik nire kolkorako.

Erri onetan gauza barregarri, negargarri izan leitekena, jazo jatan. Ecuador'en eleizaren legea da, eta lege egokia gaiñera, sasi-ezkontzako gurasoen seme-alabak ez bateatzea.

Bi familia egozan bakotxa sei seme-alabakin, bata elizatik ezkondua, eta beste sasi-ezkondua. Sasi-ezkondua egoan andrea etorri jatan, bere seme-alabentzat batea eskatzera. Eleizatik ezkondua egoala esan eustan. Geroago baten etorri jatan eleizatik ezkondua egoanaren senarra, eta nik banekien aurretik lengo andreak guzurra esan eustala, eta gizon au andra aren senarra zala-koan, esan neutsan: zergatik zure andreak guzurra esan eustan? Aitatxo, ez da guzurra, gu elizatik ezkondua gagoz!

Nik ez neutsan sinistu. Sutu nintzan eta ikaragarriko agiraka egiteko prestatu nintzan, baiña neure barruan pentsatu neban: kontuz, Joxe Mari, Ameriketara ez da Euskadi... Eta... Dana bakez konpondu zan.

BOLLEGI JOXE MARI

## EUSKERA ABERASTU

ORIXE, Ormaetxea'tar Nikola, jaino zaneke eun urte-betetzan sartu gara. Euskal idazle bikiñia gure Orixen. Danen artean onena, niretzat beinlat. Bere liburu "Quito-n arrebarekin" dalakotik esaldi oneik artu dodaz. Orixek euskeraz pentsatu eta idazten eban, ori da bere idazle balioa. Nik liburu onetako esaldi jatorrenak artu, eta bizkaieraz apur bat egokituz, emen jarriko dodaz. Zerbakiak liburuko orrialdeen ezaugarriak dira.

Eder-itxusi = amor propio.

Gizon onek ez dau batere bere buruaren ederitxusirik... Neure buruaren eder-itxusi bizia neban. (41)

Gozo izan = gustar, agradar.

Ez jatan batere gozo aren irri-barrea. (41)

Esker emon = estimar... Esker andirik emon = estimar cn mucho.

Poema ari egiteari ez deusat esker andirik ematen. (43)

Txori galdua = oveja errantte.

Etxetik alde egin neban txori galdu onek. (44)

Obc da noizbait, beñiere ez baiño = Más vale tarde que nunca (46)

Biderakoa = equipaje.

Nire biderakoa bildu dol. (47)

Lo, bai, ederki, alare! = A pesar de todo, qué bien dormía. (48)

Lo, cgitea oso neke! = Me costaba mucho el dormirme. (49)

Lo, ederra egiten neban bero, eltxo ta guzti = Bien que dormía a pesar del calor y de los mosquitos. (49)

Ni aro guztietako landarea nauzue = Yo me adapto a todos los climas. (49)

Aralar alako zazpi goi dagozan mendiak = Montes siete veces más elevados que el Aralar. (51)

Ez dau alderatzeko batío = No es posible comparar. (52)

Itz-apertu batzuk egingo doguz danetaz = Hablaremos largo y tendido. (54)

Ez da belarri mingarri = Es grato el oír. (57)

Gauzak itxura dau = Asi parece, parece verosímil. (57)

Joan eta billa = Vete a saber. (60)

Ez dakit zuzen zer urtetan = No sé seguro qué año. (62)

Argi zabal egoan ni jagiterako = Era pleno día cuando me levanté. (62)

Loaz ederki berdinurik jagi nintzan = Bien descansado me desperté. (62)

Jantzi-erantziko lañoen zelaia = Llanura de nubes de quita y pon. (63)

Musu-uts gelditu nintzan = Me quedé sin palabra. (67).

GOIKOETXEA IÑAKI S. J.

## JUANTXO-TXIKI ENTZULE (14)

*Kontu-kontari* zabiltzanean, kontulari ona ba'zara, ao-zabalik egongo jatzu Juantxo-txiki. Txarra bazara, entzunik ez. Irudimenean ikusten diran itzez bazabiltza, orduan bai Juantxo-txikik zure itzak entzun ez, jan ingo dauz.

Filosofuen antzera goi-maillatik bazabiltza, alperrik zabiltz... Juantxo-txiki urrutira joango jatzu: badau bere barruan zuk eskeintzen dautsazun baiño mundu ederragorik. Badau ark bere barruan ikuskizun ederrik...! Areik bai ikuskizunak eta zuk eskeintzen dautsazun berba ete mintzo ergelak, geldoak eta astratoak...

\* \* \*

*Zuri entzuten* ao-zabalik egon bada, zuk bukatzean, ao-zabalka asiko da. Aspertu dalako? Ez. Juantxo-txiki nekatu egin jatzu. Neurri txikiko entzulea dogu. Txiki da gauza eta arazo guztietan eta bereala gogaitzen da entzutean be.

Gogoa be txikia dau eta azkar betetzen jako: gogoa-aitu. Gogaitu da. Ao-zabalka batzuek egin ondoren, berriro uztutzen jako gogoa eta bein gogoa utzitu ezker, berriro entzuteko prest.

Ura zelan edaten dau oilloak? Tantoka, gitxika. Zure aurrean entzule daukazun umetxoa, oilloaren antzekoa dala gogoratu.

\* \* \*

*Guri be aundi* izanagaitik bardin gertatzen jaku bein baiño geiagotan, besteen entzule geranean. Ez dala ainbestekoa? Aztertu itzaldietan, entzule zaran itzaldietan alegia. nundik-nora dabillen zure gogoa eta irudimena. Belarrietan sartutako itzak ez jatzuz barrurago joaten. Frontoian jotako pelotea lez joandiran tokitik datoiz berriro...

— Nundik zabiltz?

— Ez, ni saiatzen naiz ondo entzuten, baiña...

— Baiña... aria galdu. Eldutzen dautsazu barriro ariari eta berriro galtzen jatzu.

Eldu eta galdu. Geldu eta eldu. Gora eta beera zabiltz. Orra zure jokabidea, entzule maitea. Izan be, gure entzule-aalmena itsasoaren olatuen antzekoa da: gora doa goraiño; andik asiko da beeraka beeraiño. Beetik gora barriro; goitik beera aldiro. Etenik barik.

Goraka doala, aalmena gogaitzen jaku, nekatzen eta orduan entzuteari izten dautzagu. Beeko aldean atsedean apur bat artzen dogu eta aria galtzen, gure bidetik ibiltzeko irudimenaren eskutik. Ibillaldi bat egin-da, bagatoz barriro bide onera, ariari eltzen dautsagula...

\* \* \*

*Guri orrenbeste* gertatzen bajaku, ez da arritzekoa Juantxo-txikiri gertatzea. Guri baiño gerago, gure aldean txikia dan neurrian. Kontuak atera.

\* \* \*

*Zure entzule ona* Juantxo-txiki izatea, zure eskue-tan dago. Aldi bakoitzeko egin berba gitxi, itz argiak eta irudimenarekin ikusteko modukoak. Aldi bakoitzeko, bere neurrian. Neurri txikian, txikia bait da bere neurria.

Gozo-opil gozoena be ez dogu osorik aldi bakar batean jango. Ggozoena bada be ez. Zatika baiño baik. Apurka baiño. Zure mintzoa, bardin.

ARRINDA'TAR ANES

